

EPE 2030

Euskadiko *egurraren plan estrategikoa 2030*



EPE 2030

Euskadiko *egurraren plan estrategikoa* 2030

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO





AURKIBIDEA





6	⁽⁰⁾ Sarrera
8	⁽¹⁾ Planaren aurkezpena
10	⁽²⁾ Sektoraren diagnostikoaren laburpena
20	⁽³⁾ Etorkizuneko erronkak
22	⁽⁴⁾ EPE 2030: Basogintza- eta egurgintza- sektorearen estrategia
26	⁽⁵⁾ Aurrekontua eta baliabideak
28	⁽⁶⁾ Plana jarraitu eta ebaluatzeko eredua
34	⁽⁷⁾ Eranskinak





SARRERA



Amaia Barredo Martín.
Elikadura, Landa Garapen,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua.
Eusko Jaurlaritza.

Euskadi baso-herrialdea da.

Gure lurraldearen bi heren baino gehiago basoz estalita daude, eta balio-kate osoaren oinarri dira –hasi menditik eta zerrategira, papergintzara, bilgarrietara, altzarietara, eraikuntzara eta bioenergiara–. EA Eren BPGd-aren %1,5 ematen du eta zuzeneko eta zeharkako 19.000 enplegu inguru sortzen ditu, horietako asko landa inguruan, sektorea oraindik ere jardueraren motor den tokian, despulazioari aurre egiteko tresna da eta lurraldearen kudeaketa aktiboa bermatzen du. Sektore gutxi batzen dituzte basogintzaren sektoreak dituen hiru baldintza: zutabe ekonomiko, ingurumen-aktibo eta lurralde- eta nortasun-kohesioko elementu izatea lurraldean.

Gainera, basogintzaren eta egurgintzaren sektoreak une erabakigarria bizi du.

Arrisku klimatiko eta biologikoez gain –banda marroiaren gaixotasuna da nabarmenenetakoa–, beste erronka batzuk ere baditu; izan ere, mundu osoko merkatuak birkonfiguratu ari dira, Europa gero eta arau zorrotzagoak jartzen ari da eta basoek trantsizio ekologikoan izan beharreko egitekoari buruz gero eta zorrotzagoa da gizartea.

Baina trantsizioako une hau, batez ere aukeraz betetako unea da: egurrezko eraikuntza jasangarrien eskaria gora doa, biomaterial berriak daude, bioekonomia zirkularra eta zerbitzu ekosistemikoen balorizazioa ditugu. Garatzeko aukera ugari du, beraz, euskal sektoreak eta gai izan behar gure indarguneetatik abiatu eta hedatzeko: baso ugari eta anitzak ditugu, balio-kate osoa eta nazioartekotua, enpresa eragileak eta erreferentziazko ETE espezializatuak, eta basoak jasangarritasunez kudeatzeko kultura sustraituta dugu gure lurraldean.





Egurraren Sektoreko Plan Estrategikoa 2030 (EPE 2030) aukera hori egia bihurtzeko jaio da.

Sektoreko laugarren plan estrategikoa da –2011n, 2015ean eta 2021ean onartuen ondoren–, eta argi uzten du egurraren inguruko kultura sendoa dugula, planifikatzen duena, ebaluatzen duen eta etengabe hobetzen ari dena, Europan ohi ez bezala, eta hori bera aktibo bat da. EPE 2030 ahalegin horren jarraipena da, aurreko planean ikasitakoak txertatu dira eta estrategia egokitu egin da urte gutxian nabarmen eraldatu den ingurura.

Planaren xedea argia da: epe labur eta ertainean ekintza publikoa eta pribatua orientatzea, EAEko basogintza-egurgintzaren balio-kate osoaren lehiakortasuna, erresilientzia eta jasangarritasuna areagotzeko. Balio-proposamena katearen osoko ikuspegia da: EPEk ez ditu kate-begi solteak, baizik eta sistema oso bat du –lehengaia, lehen eta bigarren eraldaketa, paper-industria, bioenergia eta gizartearekin harremana– kate-begi bakoitzaren indarra gainerako guztien indarraren mende baitago. Tokiko egurraren hornidura egonkorra bermatzea, enpresa-sarea indartzea, I+G+b eta talentua sustatzea, basoen kudeaketa ingurumen-arloko erronkekin lerrokatzea eta gizarteak sektoreaz duen pertzepzioa hobetzea elkarren mende dauden helburuak dira eta Plan honek koordinatuta heldu nahi die guztiei.

Baterako ikuspegi honek partekatutako gobernantza behar du nahitaez.

EPE 2030 partaidetza-prozesu baten emaitza da, eta prozesu horretan balio-kate osoko eragileak aritu dira; era berean, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru-aldundien arteko lankidetzan oinarritu da, erakunde bakoitza sektorean, basogintzan eta mendietan dituen eskumenetatik aritu baita. Erakundeen arteko koordinazio eta lankidetzak publiko-pribatu hori luzatu egingo da etorkizunean berrituko den Euskal Baso Planean, planifikazioko foru-tresnetan eta mendien araudian. Plan honen baldintza eta, aldi berean, konpromisoa da ekintza publiko koherentea egitea hiru planoetan (ingurumena, lurraldea eta sektorea), sektoreari eskaini ahal izateko inbertitzeko eta hazteko behar duen segurtasun juridikoa eta egonkortasuna. Lankidetzak publiko-pribatua ere bada, Baskegurrekin eta sektoreko eta ezagutzaren arloko eragile multzoarekin, ezinbesteko laguntzailea jarduerak hedatzeko.


Plan honen bidez helburu bat bera partekatzen dugu: Euskadi Europan erreferente izan dadila basoen kudeaketa jasangarrian eta egurra balio erantsi handiko produktu bihurtzeko eraldaketan.

EPE 2030 da hori lortzeko baterako ibilbide orria. Plan bizia, irekia eta ebaluagarria, sustrai sakonak eta, batez ere, etorkizuna dituen sektore baten zerbitzura.





Planaren aurkezpena



(1)





Basoaren-egurraren balio-katea EAeko ingurumen- eta ekonomia-arloko zutabee-tako bat da. Sustraiak eta etorkizuna dituen sektorea izanik, trantsizio-garaia du eta balio-katea birkonfiguratzeko ari da gure inguruan azken urteetan gertatzen ari diren arriskuen (klimatikoak eta biologikoak, banda marroien gaixotasuna batez ere) eta aldaketan (teknologikoak, merkatukoak, etab.) ondorioz.

Testuinguru horretan, 2030eko Egurraren Sektoreko Plan Estrategikoak (EPE) ekintzarako gida izan nahi du datozen urteetan Euskadiko baso-egur sektorearen garapen sozioekonomiko jasagarriarako. 2011n, lehenengo EPE onartu zenean, hasitako planifikazio-ahaleginarekin jarraituz, Euskadiko basogintza-egurgintza sektorearen lurralde- eta sektore-arloko premiak kontuan hartuta diseinatu da, Egurgintzako Sektorearen eta Lotutako Industriaren balio-kateak sartu dira, eta kontuan izan dira Euskadiko baso-mendigunearen errealitatea eta etorkizuneko bilakaera.

Plana egiteko ezinbestekoa izan da sektorearen partaidetza zabala eta egungo egoeraren eta inguruaren azterketa zehatza. Proiektu estrategikoak eta lan-ildoak jaso ditu dokumentuak, industriaren asmoen isla guztiak ere bai, eta datozen urteetarako lehentasuneko ahaleginak zehaztu ditu.





Sektorearen diagnostikoaren laburpena

(2)







2.1. EUSKADIKO BASOGINTZA- EGURGINTZA SEKTOREAREN GARRANTZI ESTRATEGIKOA.





2.1. Euskadiko basogintza-egurgintza sektoreak egiteko nabarmena du eskualdeko ekonomian, zuzenean sortzen duen balio erantsiagatik ez ezik, baita lotutako industriak dinamizatzeko duen gaitasunagatik eta lurralde-kohesioari egiten dion ekarpenagatik ere.

Basogintza-egurgintza katea EAEko BPGd-aren % 1,5 da (Estatuan % 0,1) eta zuzeneko eta zeharkako 19.000 enplegu ditu, gutxi gorabehera. Ekonomia berdearen zutabe estrategikoa da eta egiten duen ekarpen sozio-ekonomikoak areagotu egiten du landa-guneetako enpleguaren motor izateko sektoreak duen egitekoa, despopulazioaren aurkako tresna baita eta lurraldearen kudeaketa aktiboa bermatzen baitu.

Gaur egun Euskadiren **baso-azalerak** lurraldearen % 68 baino gehiago estaltzen du eta % 55 zuhaitz-azalera da. Baso-mendigune honen ondorioz baso-dentsitate erlatibo handieneko Europako eskualdeetako bat gara, eta ekoizpeneko baliabideak emateaz gain, oinarritzko zerbitzu ekosistemikoak eskaintzen ditu.

Gaur egun **euskal basoa eraldaketa-prozesuan dago**. Hostozabalak dira azaleraren % 58 egun eta koniferoak (talde nagusia, industriako aprobetxamenduetatik) % 42ra murriztu dira, 1996z geroztik intsinis pinuaren 50.000 hektarea baino gehiago galdu baitira, batez ere, **banda marroiaren** ondorioz. Eraldaketa horrek ingurumen-erresilientzia ekar dezake, baina **tentsioa eragiten du industriaren hornikuntzan**, intsinis pinuaren mende baitago % 80 inguru. Eukaliptoak 26.000 hektarea ditu eta papergintzako industriaren hornidura osatzen du, aldiz, hostozabal nobleek basoaren balio ekologikoa areagotzen dute, nahiz eta berehalako aprobetxamenduari hondar-ekarpena egin.

Maila bakoitza aztertuz gero, mintegien azpisektoreak garrantzia izan arren, **atzerakada fasean dago eta birkonfiguratzeko ari da**, ekoizle kopurua txikitzen ari da eta enpresari-profil mugatua du, Europako mintegietako joerarekin bat.

Jabetzari dagokionez, euskal basoen ezaugarriak dira jabe gehienak (% 58) pribatuak izatea, fragmentazio maila handiarekin, errentagarritasun maila txikia izatea eta belaunaldi-erleborik ez egotea. Faktore horiek guztiek eragina dute eremu batzuetako basoen kudeaketaren jarraipenean. Dauden zailtasunak kontuan izanda, beharrezkoa da aitortzea **basoen jabe eta kudeatzaile diren 20.000 pertsona** ingururen egitekoa, lurraldeko baso-azaleraren erdia baino gehiago mantentzen baitute aktiboki, eta ekarpen erabakigarria egiten diete zerbitzu ekosistemikoen hornikuntzari, mendiaren funtzio anitzari eta euskal paisaian hain esanguratsua den baso-mosaikoari. Era berean, Euskadi erreferentea da baso-kudeaketa jasangarrian eta PEFC ziurtagiria duen azaleran eta baso-jabeen elkarte-sare sendo eta egituratua du; elkar-te-sare horretan 6.600 jabe inguru daude eta 140.000 baso-hektarea kudeatzen ditu gutxi-gorabehera, lau hamarkada baino gehiagoko ibilbidearekin.

Euskadiko baso-kudeaketaren ereduak elementu bereizgarriak ditu beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta, kudeaketa publikoaren eginkizun aktiboari eta plangintza- eta ziurtapen-tresnen ezarpenari lotuta. Testuinguru horretan, Euskadik **jabetza publiko-pribatuaren oinarria eta kudeaketa publikoan profesionalizazio-maila handia** uztartzen ditu; horrek Baso Kudeaketa Jasangarriko Planen eta PEFC/FSC ziurtagirien presentzia handiagoa dakar, bereziki mendi publikoetan. Eredu heterogeneoagoak dituzten beste eskualde batzuekin alderatuta, euskal kasuak **egituraketa handiagoa, kudeaketaren jarraitutasuna eta jasangarritasun-estandarrekin lerrokatzea** erakusten ditu, baso-politika aktiboetan erreferente gisa kokatuz.





Eremu batzuetan egiturazko zailtasunak areagotu egin dira beste faktore batzuen eraginez: intsinis pinuan banda marroiak izan duen eraginagatik eta dauden zalantza handiengatik basogintzaren arloko potentziala berreskuratzeari, arrisku klimatikoak hazi izanari eta kalte naturalen aldiei lotuta. Horrez gain, arau- eta administrazio-arloko gero eta konplexutasun handiagoa dago eta basogintzari mugak jartzen zaizkion usteari konplexutasun hori gehituta, inbertsoreak desanimatu egin dira zenbait kasutan eta kudeatzeari utzi ere bai beste batzuetan.

Gaur egun, Euskadik du **estatuko basogintzako ekoizpenik handiena** azkar hazten diren espezieei esker (intsinisa eta eukalipto, esaterako) eta lurraldearen ezaugarriei esker (baldintza klimatikoak, orografia, etab.). Basogintzako aprobetxamenduak urteko 1,5 eta 2 milioi metro kubikoren artekoak dira, 2018ko goreneko maila eta gero mozketak apur bat geldotu egin baitira. “Azpisektore” honetan enpresa errematatzaileak eta basoko lanak egiten dituztenak daude eta enpresa horiek ezinbesteko egitekoa dute, haiek egiten baitituzte salerosketak, mozketak, egurra ateratzea eta menditik eraldatzen den tokira garraiatzea. Enpresa horien guztizko sarrerak eta batez bestekoak hazi egin diren arren, maila honetan gabezia esanguratsua dago basogintzako lanak egiten dituzten enpresa kopuruan, eta horrek tentsionatu egiten du lurraldearen basogintzako aprobetxamenduaren gaitasuna.

Basogintzako aprobetxamenduaren egitekotik abiatuta, **egurraren euskal industriak eraldaketa-kate osoa du** eta intsinis pinuaren oso mende dago; hor sartzen dira hasi zerrategiak eta oholak egitetik eta bilgarrietara, paperera, altzarietara edo zurgintzara arteko guztiak.

Zenbait enpresa eragile daude (azpisektore desberdinetan), estatuan eta nazioartean erreferenteak dira, eta ibilbide nabarmena dute hazkundean, inbertsioan eta berrikuntzan. Bestalde, enpresa-sarean enpresa txikiak eta familia-negozioak dira nagusi, belaunaldi-erleborako arazoak dituzte eta eskala mailako mugak eta inbertsio-gaitasuneko mugak ere badituzte. Nahiz enpresa handientzat nahiz ETE-entzat banda marroiaren gaixotasuna mendiak eraldatzen ari da eta zalantzan dago egur-hornidura.

- Lehenengo eraldaketan ETE sendoak eta estatu eta Europa mailan erreferenteak diren enpresa handi gutxi batzuk ditu Euskadik, baita Europako hego-mendebaldeko zerrategi nagusienetako batzuk ere; papergintzako industria ere handia eta esportatzailea da, eta eskala handiko enpresak ditu.
- Bigarren eraldaketan askotariko ehuna dugu, maila tekniko handikoa. Enpresa ugari dago (bilgarrienak, zurgintzakoak, altzarigintzakoak eta eraikuntzakoak), egiten dituzten gauzek kalitate handia dute eta enpresa horien ospea ona da. Baina balio erantsi ertain-handiko produktuen eskaintza mugatua ikusten da.
- Euskadiko berriztagarrien kontsumoaren erdia baino gehiago basoko biomasa da eta azpiproduktuen balorizazioari eta deskarbonizatzeko helburuei laguntzen die; eta azaleratzen ari diren biomaterialak sektorearen etorkizunerako aukera dira.

2008az geroztik, enpresa industrialen kopurua erdia baino gehiago murriztu da (967 enpresa aktibo 2024ko urtarrilean). Euskal egurgintzako industrian galdu den enplegua bat dator Europako beste herrialdeetan gertatuarekin, hau da, 2008-2020 aldian urteko batez besteko galera % 1,7koa izan da, eta nabarmenagoa da zura eta kortxoaren kasuan eta altzarigintzan. Baina sektoreak 2020az geroztik bizi izandako une onak (prezioek eta eskariak gora eginda) enplegua mantentzeaz gain, apur bat berreskuratzea ere lortu du.





Euskal sektorearen heldutasunari eta irekierari esker, eta etorkizunari buruz dagoen zalantzaren ondorioz –batez ere banda marroia dela eta– azken urteetan nazioartekotzeko prozesuak edo estrategiak ikusten hasi gara, integrazioaren edo inbertsioaren bidez haztekoak ere bai, espezializazioa eta ehunaren kontzentrazioa ikusteaz gain.

Balio-katea osatzeko, ezagutzaren, berrikuntzaren eta laguntzaren arloko eragileak daude. Zentzu horretan positiboki nabarmendu behar da Baskegurren ekarpena lehiakortasuna eta lankidetzaren indartzeko, baita ezagutzaren arloko eragile oinarri teknologikoa ere eta erakundearen laguntza ere bai. Dena dela, erakundearen arteko koordinazioa hobetu daiteke, egitura publikoen masa kritikoa falta dela nabari da eta lotura operatibo txikia dago industria eta I+G+b artean.

Sektorearen gizarte-pertzepzioari dagokionez, Baskegurrek sustatuta duela gutxi egindako azterlan baten arabera (821 elkarrizketa egin dira), euskal herritarrak apur bat kezkatuta daude ingurumenaz eta basoen egoeraz, nahiz eta basogintzari buruzko ezagutzan alde handiak egon eta egurra baliabide jasangarri gisa erabiltzeari buruz ere bai. Hori dela eta, beharrezkoa da sektoreari buruz gizarteak duen pertzepzioa hobetzea, herritarrei erakustea basoen kudeaketa jasangarriak ez duela narriadura esan nahi, baizik eta ezinbesteko baldintza dela basoak bizirik, biodibertsitatearekin eta ekoizten dutela mantentzeko.

Euskadiko basogintza-zurgintza **une giltzarrian** dago:

- Indargune hauek ditu: baso ugari eta anitzak, balio-kate osoa eta nazioartekotua, trakzio-enpresak eta ETE espezializatuak, basogintzako kultura eta basogintzako kudeaketa jasangarria lurralde osoan (mendien foru-arauetan txertatua) eta basogintzako kudeaketa jasangarriaren ziurtagiriek ematen duten zilegitasuna (zuhaitza-azaleraren % 28).
- Eta ahulgune hauek: banda marroiaren ondorioz beheraka doan intsinis pinuaren mendekotasuna, basoen jabetza zatikatuak, enpresa-arloko atomizazioa, belau-naldi-erleborik ez eta langile kualifikaturik ere ez, gizartearen pertzepzio negatiboa eta sektorea ez ezagutzea.

Erronka horiei aurre egitea giltzarria izango da 2023an Euskadi Europako erreferente izateko basoen kudeaketa jasangarrian eta egurra balio erantsi handiko produktu bihurtzean.





2.2. EGURRAREN ETORKIZUNA: ALDATZEN ARI DEN MUNDUKO ERRONKAK.





2.2. Euskadiko basogintza-egurgintza sektorea datozen hamarkadetan nazioarteko inguru oso aldakor eta konplexuan ibili beharko da: basoko produktuen eta zerbitzu ekosistemikoen balizko eskaria handiagoa izango da, baina arrisku biologikoak eta klimatikoak ere hazi egingo dira, lehengaiagatik lehia handiagoa izango da, Europa mailan aritzeko arauak zorrotzagoak izango dira eta gizartea adiago egongo da trantsizio ekologikoan basoek duten egitekoaz.

Euskadiko egurgintzaren sektorerako erronka ez da soilik aldaketa horietara egokitzea, baizik eta ahal dela aldaketa horiek aprobetxatzea eta basoetako kudeaketa aktibo, jasangarri, erresiliente eta lehiakorragoa indartzea, balio ekonomikoa sortzea kapital naturala zaintzearekin eta landa-inguruaren garapen orekatuarekin lerrokatzeko, jasangarritasun hirukoitza sustatuz (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa).





2.3. BASOGINTZA-SEKTOREKO ARAUZKO TESTUINGURUA.





i. Europako arau-esparrua

Europa mailan arauzko esparruari dagokionez, azken hamarkadan EB iga-ro da basogintzako eta egurgintzako arauzko gune nahiko egonkorretik (habitatak, hegaztiak, ura eta basogintzako programa batzuk) katea osoan eragina duen mosaiko trinko eta zeharkako batera.

Arau horien konplexutasunak eta teilakatzek –European Forest Institute-k berak esan zuen puzzle konplexua zela 2025eko apirilean “EU Forest Policy Environ-ment 2025” aurkeztu zuenean– administrazio arloko kostuak hazi egiten ditu eta jabe txiki eta ETEentzako zalantzak ere bai, eta sektorean desmotibaziorako faktore bat gehiago da; horrek kudeaketa aktiboa alde batera uztea ekar dezake, laguntza tekni-korik, leihatila bakarrik eta ezartzeko egutegi errealistik ez badago.

ii. Euskadiko arauzko esparrua eta sektoreko planifikazioa

Euskal administrazio publikoa, basogintza-egurgintzako sektorearen esku-menon banaketan, gaur egun saiatzen ari da esparru politikoa eta arauzkoa sektorea-ren errealitatera eta premietara egokitzen:

Lurralde eta ingurumen-mailan, Euskadin hainbat planifikazio-tresna daude basogintzan eragina dutenak, eta azken urteetan berraztertzen ari dira (lurralde-plan sektorialak, arau subsidiarioak, etab.). Sektorearentzako erronka da eskura dauden tresnak (LPS...) garatzea eta egoki uztartzea lurraldearen antolamendua, inguru-men-araudia eta basogintzako planifikazioa, mendietan jarduera ekonomikoa garatu nahi duenari segurtasun juridikoa emateko.

Basogintzako planifikazio mailan, Euskadiko Baso Plangintza (EBP) epe luzerako planifikazio-tresna da Euskadin. Gaur egun EBP 2030 indarrean den arren, sektoreko koiunturak bizkortu egin du berraztertze eta eguneratzeko beharra eta 2040 EBP egitekoa 2026an, eskumena duten erakundeek koordinazioari esker.

Esparru honetan bi txosten egin eta onartu dira Bizkaiko eta Gipuzkoako Bat-zar Nagusietan lurralde historiko bakoitzeko basogintzako politikei buruz. Bizkaiari dagokionez, prozesua Bizkaiko Mendiei buruzko apirilaren 22ko 2/2026 Foru Arau berria onartzearekin amaitu zen. Arau horrek mendiei eta babestutako naturaguneen administrazioari buruzko aurreko 3/1994 Foru Araua ordeztzen du.

Amaitzeko, **sektoreko plangintzaren** mailan, Egurraren Sektoreko Plan Estrategikoa (2030 EPE) da epe labur-ertaineko (2026-30) ekintza bideratzen duen plangintza estrategikoaren esparrua basogintza-egurgintza sektoreko jarduera ekonomiko eta sektore guztientzat Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza sailaren eta foru-aldundien eskumenen pean.



Etorkizuneko erronkak



(3)





Egun sektoreak duen egoeraren diagnostikoa baliagarria da heldu beharreko lehentasunezko erronka batzuk identifikatzeko. Balio-katean zehar daude ordenatuta:

(1) SILBIKULTURA	Lurraldearen/baso-masaren kudeaketa adimenduna	Baso-plangintza estrategikoa
	Ekoizpen eta produktibitate jasangarriak	Baso-kudeaketa aktiboa, moldagarria eta profesionala
(2) ERALDAKETA (1.a ETA 2.a)	Balio-kate industrialaren errekonfigurazioa	Sendotzea hazkundearen, sustraitzearen eta espezializazioaren bidez
	Sofistikazioa dibertsifikazio, berrikuntza, arlo digital, marka... bidez	Baso-kudeaketa aktiboa, moldagarria eta profesionala
(3) INGURUMENA	Baso-kudeaketa jasangarria	Produktuaren trazabilitatea
	Erosketa publikoa	Zerbitzu ekosistemikoen balorizazioa
(4) BASO-BIOEKONOMIA	Euskal ekonomiaren "biologizazioa"	Bioekonomia zirkularra
(5) GIZARTEA	Sentsibilizazioa	Gardentasuna eta datuak
	Neurketa eta entzuketa	Gizarte-adostasuna
(6) ZTI ETA LAGUNTZA ERAGILEAK	Ezagutzaren transferentzia arina	Arreta osasunean, genetikan eta bioekonomian
	Talentu gaztea erakartzea	Prestakuntza eta birkualifikazioa
	Laguntza-bermea (erreleboa)	Epeak laburtzea
	Sistema interoperagarriak	IA eta Big Data erabiltzea
(7) ZEHARGAKOAK	Segurtasun juridikoa	Finantza-esparru sendoa
	Gobernantza egonkorra	Sektore barruko lankidetzak
	AA.PP.en arteko koordinazioa	Nazioarteko aliantzak





EPE 2030: Basogintza- eta egurgintza- sektorearen estrategia

(4)





4.1. HELBURU ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK.

4.1. Hona hemen 2030 EPEren **helburu estrategikoak**:

(1)	<u>Lehiakortasuna</u> eta erresilientzia areagotzea basogintza eta egurgintzako balio-kate guztian.
(2)	Belaunaldi-erreleboa eta <u>gaitasun</u> teknikoa sustatzea sektorean, prestakuntza-programa integral eta espezializatuen bidez, arreta berezia jarritz emakumeei eta gazteei.
(3)	<u>Basogintzako I+G+b</u> -a indartzea <u>basogintzako osasuna eta hobekuntza genetikoa</u> bultzatzeko eta <u>basogintzako bioekonomia</u> aurreratua sustatzea biomaterial berriak, produktuak eta energia berriztagarria sortzeko basogintzako baliabideetatik abiatuta.
(4)	<u>Basogintzako kudeaketa jasangarria</u> bultzatzea, ingurumen-erronkekin lerrokatuta, eta, aldi berean, tokiko egurraren eske jasangarria eta lurraldearen erabilera arduratsua sustatzea. Lehengaiaren ardatzeko jarduerak lurralde historikoetako foru-organoei mendien eta basogintzaren kudeaketan dagozkien eskumenen kalterik gabe ulertzen dira, eta hauek eskumenok erabiltzean ezarritako irizpideen kalterik gabe. Foru-organo horiekin koordinatuta ezarriko dira.
(5)	<u>Sektoreko gobernantza indartua</u> , arina eta etorkizunari begiratzen <u>diona</u> finkatzea, laguntza tekniko espezializatua bermatzeko, ezagutzaren transferentzia bizkortzeko, arauzko eta lan-jarduketako esparruak eguneratzeko, koordinazioa (publiko-publikoa eta publiko-pribatua) indartzeko eta erabakiak arin eta informatuta errazago hartzeko sektorearen garapen jasangarriari begira (<i>helburu hori Euskadiko Baso Plangintza berrian garatuko da</i>).



Hona hemen 2030 EPEko **proiektu estrategikoak**:

1. **Basogintzako kudeaketaren eta egur-horniduraren trebakuntza hobetzea**
Euskadiko basogintzako kudeaketaren eta egur-horniduraren profesionalizazioa hobetzea Euskadin, honako hauek baliatuta: koordinazio-formula aurreratuak, baterako plangintza eta balio-kateko mailen elkarlana. Helburua da industriari hornidura ziurtatzea eta lehengaiak mugitzean efizientzia hobetzea.
2. **Nazioarteko lehiarekiko Euskadiko enpresa-ehunaren lehiakortasuna indartzea**
Hazkuntza, integrazioa, dibertsifikazioa, espezializazioa eta/edo jarraipena (ondorengotza, errotzea...) sustatzen duten enpresa-proiektuak babestea estrategia nagusi gisa Euskadiko basogintza- eta egurgintza-kateko enpresa-sarearen lehiakortasun jasangarria indartzeko, nazioartean gero eta lehia handiagoa dagoen honetan.
3. **Bitek, basogintzako I+G+b-aren unitate mistoa, sortzea**
Baterako basogintzako unitate misto berria abian jartzea NEIKER eta HAZIren artean, NEIKERen ezagutza zientifikoa eta HAZIren esperientzia aplikatua bateratzeko. Helburua da lankidetzaren operatibo estua sustatzea bi erakundeetako basogintza-taldeen artean eta sektoreak dituen erronka praktikoei hobeto erantzutea.
4. **Baskegur 2030**
Etaparen berria definitzea Baskegurren bilakaeran, helburuak, zereginak, konpromisoak, baliabideak eta giza taldeak egokitu behar baitira laguntza espezializatua, arina eta eraginkorra ematen jarraitzeko sektoreko balio-kate guztiaren erronka nagusien aurrean.
5. **Egurraren Behatokia eta digitalizazioa**
Egurraren behatokia sortzea sektorearen informazioa eta informazio sistemen digitalizazioa eta elkarrengarritasuna antolatzean eragile publikoen eta pribatuen ahaleginak batzeko eta osatzeko. Denbora errealean kalitatezko datuen erabilera gehitu nahi da sektorean erabakiak hartu eta jakinarazteko.

Horrez gain, Euskal Baso Plangintza berrian garatuko diren bi proiektu estrategiko identifikatu dira:

1. **Arauzko eta lan-jarduketako esparrua eta plangintzakoa**
Euskadiko basogintza- eta egurgintza-sektoreari eragiten dioten araudia eta plangintza berrikustea, eguneratzea eta antolatzea, sektoreak arau-testuinguru argia, koherentea eta gaitzen duena izan dezan basogintza eraginkortasunez kudeatzeko, baliabideak jasangarritasunez mugitzeko eta mendiko ekoizpen-oinarria eta industriako beharrak lerrokatzeko.
2. **Espezieen estrategia: basoaren osasuna, hobekuntza genetiko eta esperimentazioa**
Honako hauek bultzatzea: basoaren osasuna, hobekuntza genetiko, espezie berriekin esperimentazioa eta erabilerarik ez duten gainazalak ekoizpenaren ikuspegitik berreskuratzea. Helburua da ekoizpen-mailak mantendu eta ziurtatzea epe luzean eta ekoizpen-espezie bakarrarekiko mendekotasuna murriztea.

Helburu eta proiektu estrategikoen inpaktu bat espero dute Nazio Batuetako garapen jasangarriko helburuetan (GJH) erreferentziazko esparru estrategiko gisa.





Aurrekontua eta baliabideak

(5)





2030eko Euskadiko Egurraren Plan Estrategikoaren (EPE) guztizko aurrekontua 225 milioi eurokoa (M €) da bost urterako (2026-2030). Zenbateko globala bi finantza-kontzeptutan banatzen da:

- Ekarpen publikoa (5 urte): 45 M €. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzaren zuzkidura da (urteko 9 M €). Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ematen du Eusko Jaurlaritzako Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetza-
ren eta HAZIren bidez. Azkenekoa HAZIren eta Baskegurren arteko urteko hitzarmenaren bitartez ematen da.
- Eragindako inbertsio pribatua (5 urte): 180 M €. Planak sektore pribatuaren inbertsio hau mugiaraztea espero du funts publikoen arrastatze-efektuari esker. 1/4 efektu biderkatzailea zenbatetsi da, hau da, inbertitzen den euro publiko bakoitzeko, sektore publikoak 4 euro gehiago jarriko lituzke. Urtekoetan, 36 milioi euroko inbertsio publikoa aktibatuko da urtero (9 M € x 4), eta gutxi gorabehera 180 milioi euro metatuko dira bost urteetan.

Deskribatutako aurrekontuan ez dago sartuta Baskegurreko giza taldeen arduraldiagatiko orduko kostua, nahiz eta EPE kudeatu eta jarduna koordinatzen arituko diren. Halaber, ez da sartzen Idazkaritza Teknikoaren kostua EPE jarraitu eta ebaluatzeko.





Plana jarraitu eta ebaluatzeko eredua

(6)







6.1. LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA KUDEAKETA.





6.1. 2030 EPE Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetzak bultzatzen du, eta, beraz, haren buru da. Are gehiago, bere ardurapean daude Planaren proiektu estrategikoak eta ekintzak dinamizatzea, gauzatzea, jarraitzea, kontrolatzea, jakinaraztea eta ebaluatzea.

HAZiren ardura izango da kudeaketa eta koordinazio operatiboa, Baskegurrekin batera eta EPEren Batzorde Estrategiko berriaren kontrolpean.

Euskadiko lehen sektoreko erakundeen arteko mahaiak erakundeen arteko harremana eta koordinazioa antolatuko du 2030 EPE dokumentuari dagokionez. Organo horrek honako kide hauek ditu:

- Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetza bera. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako sail eskudunak lehen sektorearen arloan.
- Urtero, Eusko Jaurlaritzako Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetzak, EPEren koordinatzaile nagusiaren bidez, jarraipen-mahaian partekatuko du nola ezartzen ari den 2030 EPE dokumentuaren beraren indarraldian.

Gauzatu eta zuzendaritza politiko-teknikoari dagokionez, ad hoc Batzorde Estrategikoa eratuko da, planaren ezarpena eta bilakaera etengabe jarraitu eta kontrolatzeko. Batzordearen buru Sailburuordetza izango da, EPEren koordinatzaile nagusiaren bidez, eta bertan parte hartuko dute HAZIko (basogintza arloa) eta Baskegurreko arduradun gorenak, egokitzen jotzen diren Sailburuordetzako beste ordezkari batzuek gain.

Jarduketa-arlo, proiektu estrategiko eta ekintza desberdinen harira, HAZI eta Baskegurren ardurapekoa izango dira 2030 EPE dokumentuaren kudeaketa eta koordinazio operatiboa, EPEren Batzorde Estrategikoak adierazitako gidalerroetatik abiatuta.



6.2. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA.

6.2. 2030 EPE dokumentuak jarraipen- eta ebaluazio-sistema du planaren eraginkortasuna ebaluatzeko, beharrezko doikuntzak egiteko eta helburuetan nola egin den aurrera neurtzeko. Hala, sektoreko lehentasun estrategikoekin eta ingurune sozioekonomikoko aldaketekin lerrokatzen dela ziurtatuko da.

Xede horrez, EPEk honako tresna hauek izango ditu:

- **2030 EPE aginte-taula estrategikoa.** 10 adierazle kritiko dira, eta laburki azaltzen dute 5 helburu estrategikoen aurrerapena (*xehetasuna hurrengo orrialdean*).
- **Proiektu estrategikoen** fitxak, ekintza-plangintza, adierazle, esperotako emaitza eta harekin lotutako ad hoc aurrekontuarekin.
- 2030 EPE dokumentuaren **ekintza-plana**: lan-ildoak eta ekintzak lan-arlo bakoitzerako. Batzorde Estrategikoak urtero ikuskatu eta eguneratuko ditu.
- **HAZiren kontrol-tresnak** Baskegurrekin egindako urteko hitzarmenaren barruan, besteak beste, aldizkako bilerak, jarraipen-txostenak, Basketurren aldizkako azalpenak, etab.

Batzorde Estrategikoak ikuskatuko du EPE jarraitu, kontrolatu eta ebaluatzeko zikloa, eta zenbait denbora-mugarritan antolatuta dago. Urtean zehar, HAZik eta Baskegurrek etengabe jarraituko dute plana, eta jarduneko gaiak ebatziko dituzte, sei hilez behin helaraziz beren ondorioak Batzordeari, ikuskatu eta, bidezkoa bada, doikuntzak onets ditzan. Urtero amaitu den ekitaldiko jarraipen-txostena egingo da, bai eta urte berrirako ekintza-plana ere. Sailburuordetzak onetsi beharko ditu, eta, ondoren, sektoreko erakundeen arteko mahaian aurkeztuko dira.

2028. urtearen hasieran bitarteko ebaluazioa egingo da. Hala, adierazleak aztertuko dira; proiektuen, ildoen eta ekintzen aurrerapausoak berrikusiko dira eta planaren balizko doikuntzei erreparatuko zaie.

Azkenik, 2030. urtea amaitzen denean, azkenekoz ebaluatuko da. Hala, adierazleak neurtuko dira, proiektuak baloratu, funtsezko eragileekin alderatu eta ikasitakoa formulatu ere bai, hobekuntza-gomendioak gehitzeaz gain.





Aginte-taula estrategiko hau ekintza-planeko adierazleekin osatuko da:

EPEren helburu estrategikoa	Adierazlea	Nola neurtu	Oraingo balioa	2030eko HELBURUA	Erreferentziazko iturria
(1) Lehiakor-tasuna eta erresilientzia areagotzea basogintza eta egurgintzako balio-kalte guztian.	Autosufizientzia egurra hornitzeko orduan	Gertuko egurrarekin betetzen den industria-kontsumoaren %	% 70	% 75-80	HAZI, Baskegur
	Basogintza- eta egurgintza-kateko balio erantsia	Sektoreko BEGd-aren bilakaera (€ konstanteak)	845 M€ (2022)	900 M€	Baskegur – Euskadiko Egurraren Behatokia
(2) Belaunaldi-erreleboa eta sektorearen gaikuntza tekniko sustatzea.	Gaikuntza-maila sektorean	Sektorean sartzeko prestakuntza espezializatua jasotzen duten pertsonen kop.	-	+% 15	HAZI eta Baskegur (prestakuntza-ekintzekin lankidetzan)
	Gazteak sektorean sartzea	Urtero sektorean sartutako pertsonen kop. programa publikoei esker	-	+% 10	Gaztenek – EJGV eta beste programa publiko batzuk; eta Baskegur
(3) I+G+b-a indartzea eta basogintzako bioekonomia aurreratua garatzea.	I+G+b-aren arloko inbertsioa basogintza- eta egurgintza-sektorean	Manufaktura-industriako langile bakoitzeko inbertsioaren datua (oinarria: 100). 5 urteko batez bestekoa	113,7 (2018-2022)	120 (2026-2030)	Baskegur – Euskadiko Egurraren Behatokia
	Bioekonomia bultzatzea	I+G+b-ako proiektuen kop. abian eta mugitutako inbertsioa	7 proiektu (Poloa) / 3,1 M €	20 proiektu / 10 M €	HAZI, NEIKER, Baskegur eta BITEK
(4) Basogintzako kudeaketa jasangarria eta ingurumen-erronkekin lerrokatuta dagoena bultzatzea.	Basoko azalera kudeaketa aktibo eta jasangarripean	Ziurtatutako azaleraren % (PEFC, FSC)	% 28	% 35	Basalde
	Sektorearen gizarte-pertzepzioa	Basogintza-kudeaketa aktiboa ingurumenerako onuragarria dela uste duten pertsonen %	% 70	% 75-80	Basogintza-sektoreari buruzko gizarte-pertzepzioaren inkesta - Baskegur
(5) Sektoreko gobernantza integratua eta etorkizunari begiratzen diona finkatzea.	Laguntza-eragileetan gaitasun espezializatuak indartzea	Sektoreari laguntzeko urteko guztizko aurrekontu publikoa (proiektuak/ programak + langileak)	EPEren 2026ko aurrekon. (€)	+% 10 proi./ prog. + % 15 langileak	Sailburuordetza, Foru Aldundiak eta sozietate publikoak (NEIKER, HAZI)





Eranskinak

(7)





7.1. PROIEKTU ESTRATEGIKOAK.

Segidan, proiektu estrategiko bakoitzaren xehetasunak daude:

1. Proiektua	Basogintzako kudeaketaren eta egur-horniduraren trebakuntza hobetzea	
Deskribapena	Euskadiko basogintzako kudeaketaren eta egur-horniduraren trebakuntza hobetzea Euskadin, honako hauek baliatuta: koordinazio-formula aurreratuak, baterako plangintza eta balio-kateko mailen elkarlana. Helburua da industriari hornidura ziurtatzea eta lehengaiak mugitzean efizientzia hobetzea.	
Proiektuaren funtsak	Zeharkako proiektu bat da zenbait “palanka” eragiteko, beharrezkoak baitira basogintzako eta basozaintzako kudeaketa adaptatiboa, adimenduna eta teknikoki egokia sustatzeko. Helburua da hurrengo urteetan sektoreko industriari egurraren hornidura egonkorra eta kalitatezkoa bermatzen laguntzea, klimaren eta biologiaren arriskuak aintzat hartuta. Baskegurrek eraginda (balio-kateko mailen ordezkari gisa) eta eragileen laguntzaz, proiektuak kateko eragileen arteko (menditik industriaraino) lankidetzaren formula berriekin lotutako ekintzak izango ditu barne. Hala, basogintza-kudeaketan profesionalizazioa eta koordinazioa indartu nahi dira, lehengaiak mugitu eta eskuratzeko jardunbideak tarteko eta, horretarako, basogintza-kudeaketa jasangarriko plangintza-tresnen (BKJPT), basogintzarako beharrezkoak diren azpiegituren baterako plangintzen, eta abarren laguntza izango da.	
Justifikazioa	• Euskal industriari egurraren hornidura bermatzea. • Lehengaiak eskuratzeko batera planifikatzea. • Efizientzia handiagoz mugitzea. • Mendiaren eta industriaren arteko harremana indartzea, koordinazio, profesionalizazio eta efizientzia handiagoa bilatuz basogintza-kudeaketan. • Inportazioekiko mendekotasuna murriztea. • Basogintzako lanen profesionalizazio-maila areagotzea. • Industria-egonkortasunean, basogintza-kudeaketa aktiboan eta tokiko egurraren balorizazioan laguntzea.	
Arduraduna/k	Balio-kateko eragileak Baskegurren ordezkari zapean eta bestelako eragileekin, adibidez Basoekin.	
Jarduketa-arloak	Lehiakortasuna.	
Ibilbide-orria	Sektoreko eragileekin lantaldea sortzea hornitzeko aukerako ereduaren harira.	S1 2026
	Baterako plangintza estrategikoa garatzea Euskadiko basogintzako bideen sarea hobetzeko jardueraren eta basoen funtzio askoko erabileren euskarri gisa.	S2 2026
	Basogintza-kudeaketa jasangarriko plangintza-tresnak (BKJPT) garatzea, berritzea eta mantentzea.	S1 2027
	Ekintzak identifikatzea basogintza-kudeaketaren profesionalizazioa, basogintzako lanak eta egurraren hornidura hobetzeko.	S2 2027
	Identifikatutako ekintzak inplementatzea, adibidez urte askoko hornidura-kontratuak jabearen eta industriaren artean.	S1 2028
Eraginpeko GJHak	• 8. GJH – Lan txukuna eta hazkuntza ekonomikoa • 9. GJH – Industria, berrikuntza eta azpiegitura • 12. GJH – Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak • 13. GJH – Klimaren aldeko ekintza • 15. GJH – Lurreko ekosistemen bizitza • 17. GJH – Aliantza helburuak lortzeko	




2. Proiektua	Euskal enpresa-ehunaren lehiakortasuna indartzea nazioarteko lehiari aurre egiteko	
Deskribapena	Honako hauek bideratzen dituzten enpresa-proiektuei laguntzea: hazkuntza, integrazioa, dibertsifikazioa eta/edo jarraipena (ondorengotza, errotzea); Euskadiko basogintza- eta egurgintza-katearen enpresa-ehunean lehiakortasun jasangarria indartzeko eta Euskadin ekoizpen-gaitasunak, enplegua eta erabaki-zentroak indartzeko lehentasunezko estrategia gisa ezarritik, nazioarteko lehiakortasuna handitzen ari den testuinguru batean.	
Proiektuaren funtsak	Proiektuaren helburua da zenbait laguntza ematea ehunari lehiakortasun jasangarria indartzen duten enpresa-estrategiak abian jartzeko. Adib.: • Ondorengotza – eskualdaketa: Nola bermatu erreleboa ETE lehiakor eta errentagarrien (aroztegiak, interiorismoa, etab.) jabetzan eta/edo kudeaketan? Beste enpresa batzuekin, ekintzaileekin, eta abarrekin lotura eta lankidetzaz erraztea. • Berrikuntza – dibertsifikazioa -espezializazioa: Nola nabarmen daitezke lehiarekiko enpresak gaitasunik eta ezagutzarik ez badute I+G+b-ko proiektuak garatzeko? Euren eskura laguntza, gaitasunak eta batera erabiltzeko instalazio espezializatuak jarritik. • Integrazioa – finkatzea: Nola sustatu euskal enpresa eragileen hazkuntza eta integrazioa (ur gora eta/edo behera) Europan sektorea finkatzen ari den testuinguru batean? Sektorearen etorkizunerako estrategikoak izan daitezkeen inbertsio-proiektuak eta eragiketa korporatiboak babestuz. • Errotzea: Nola indartu euskal enpresa lehiakor eta eragileen errotzea? Apustu handia eginez sektorearen erresilientzia bideratzen duten eta enpresa-ehuna galtzea saihesten duten eragiketen alde. Proiektuak honako hauek lortzeko programetarako sarbidea uztartuko luke: inbertsioa eta hazkuntza laguntzea (enpresa motaren eta tamainaren arabera); I+G+b-rako ahalmen eta/edo instalazio espezializatu berriak ematea; finantza-eragile eta -tresna espezializatuarako sarbidea (badaudenak edo berriak), enpresei banakako tutoretza eta laguntza ematea, etab.	
Justifikazioa	• Enpresen jarraipen eta belaunaldiarteko erreleboa erraztea. • Enpresen batez besteko lehiakortasuna eta tamaina indartzea. • Industria-gaitasunak eta enplegu gaitua ez galtzea. • Sektorean erresilientzia hobetuko duten integrazio bertikaleko integrazio-prozesuetan laguntzea. • Sektoreko enpresa estrategikoen errotzea bermatzea.	
Arduraduna/k	Eusko Jaurlaritza eta Baskegur (enpresa-ehunaren ordezkaria).	
Jarduketa-arloak	Lehiakortasuna. Belaunaldiarteko erreleboa eta trebakuntza teknikoa.	
Ibilbide-orria	Definituta dauden programak abian jartzea.	S12026
	Programa eta laguntza-tresna berriak diseinatzea.	S2 2026
	Eragiketa estrategikoei laguntzeko aliantza eta aparteko mekanismoak indartzea (finkatzea, errotzea...)	S12027
Eraginpeko GJHak	• 8. GJH – Lan egokia eta hazkuntza ekonomikoa • 9. GJH – Industria, berrikuntza eta azpiegitura • 12. GJH – Ekoizpen eta kontsumo arduratsua • 17. GJH – Helburuak lortzeko aliantzak	





3. Proiektua	Bitek sortzea, I+G+b-aren baso-unitate mistoa	
Deskribapena	NEIKER eta HAZIren artean baterako baso-unitate mistoa abian jartzea, NEIKERen ezagutza zientifikoa HAZIren esperientzia aplikatuarekin uztartuz, erakunde bien baso-taldeen arteko lankidetzaren operatibo estua sustatzeko eta sektoreak gainditu behar dituen erronka praktikoei hobeto erantzuteko.	
Proiektuaren funtsak	NEIKERen ikerketa-taldeek eta HAZIko teknikariek unitate bakarrean egingo dute lan, Bitek izenekoan. NEIKER, HAZI eta Baskegurren partaidetzarekin koordinazio-batzordea sortuko da, eta hainbat lan-protokolo adostuko dira, proiektuak identifikatu, hautatu, egikaritu eta jarraitzeko. Urtero lehenetsuneko proiektu batzuk hautatuko dira, argi eta garbi baso-sektorearen interesetara bideratuta daudenak, eta alde biek lankidetzan arituz lan egingo dute horiek egikaritu eta jarraitzeko. Arloan bi buru egongo dira: ikerketarako bat (NEIKER) eta arlo teknikorako beste bat (HAZI), eta talde espezifikoek osatuko dituzte. Biteken helburua da erreferentziazkoa izatea eta kaudimen tekniko nahikoa eskuratzeko EJRen euskarri tekniko eta laguntzaile bihurtzeko basogintzako eta egurgintzako balio-katea dinamizatze aldera.	
Justifikazioa	- Sektorean ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia indartzea - Modu eraginkoragoan erantzutea sektoreko eskaerei, NEIKERen ikerketa lerrokatzea sektorearen premia errealekin. - Basogintzaren sektorean ikerketa eta jardunbidearen arteko lankidetzaren hobetzea, HAZIko eta NEIKEReko baso-taldearen arteko lankidetzaren operatiboa estutuz eta baliabideak optimizatuz.	
Arduraduna/k	HAZI eta Neiker.	
Jarduketa-arloak	Bioekonomia eta I+G+b. Gobernantza.	
Ibilbide-orria	Lankidetzaren akordio formal eta unitatearen sortzeko erakunde-babeseko akordioa.	2026 3S
	Biteken Plan Estrategikoa definitzea eta Ikerketa eta Transferentzia Agenda egitea.	2026 2S
	Eragiketa eta lehenengo proiektu pilotuak abian jartzea eta sektorean teknologia-zerbitzuen programa ezartzea.	2027 3S
	I+G+b transferitzeko sistema sortzea.	2027 2S
	Lankidetzaren sarea basoko I+G+b-ko liderrak diren eskualdeetako (hala nola Zeelanda Berria eta Galizia) eragileekin, baterako proiektuak egiteko.	2028 3S
	Eragin zientifiko-industrialaren lehenengo txostena argitaratzea.	2029 2S
	Baso-zientzia aplikatuen euskal erreferente gisa aitortua izatea, estatuko edo Europako proiektuarekin.	2030 3S
	2035 Agenda argitaratzea, sektorearen eraldatze-ziklo berrirako lehenetsun zientifiko eta industrial berriak ezarri.	2030 2S
Eraginpeko GJHak	9. GJH – Industria, berrikuntza eta azpiegitura 12. GJH – Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak 13. GJH – Klimaren alde jardutea 17. GJH – Helburuak lortzeko aliantzak	







4. Proiektua	Baskegur 2030	
Deskribapena	Baskegurren bilakaeran etapa berria definitzea, eta horretan beharrezkoa izango da helburuak, eginkizunak, konpromisoak, baliabideak eta giza taldea egokituz, erronka nagusiei aurre egiteko orduan sektoreko balio-kate osoari laguntza espezializatua, arina eta eraginkorra ematen jarraitzeko.	
Proiektuaren funtsak	Baskegurri lotutako erakunde eta pertsonen modu positiboan baloratzen dute sortu zenetik egondako jarduketa, zerbitzua eta lorpenak, ordezkapen-eragilea izatetik sektorearen lehiakortasunari laguntzeko proiektuen kudeatzaile izatera iritsi baita. Hala ere, egiturazko mugak eta sektorearen premiak aldatu direnez, Baskegurren etapa berria ireki behar da, hurrengo urteetan sektorearen laguntza eta antolaketa indartzeko. Xedea da helburuak, eginkizunak eta zerbitzuak birpentsatzea, sektoreari bere bilakaeran laguntzen jarraituko duen "Baskegur 2030" delakoa diseinatzeko. Horrek dakar jarrera eta eginkizuna doitzea, zerbitzuen zorroa egokitzea eta kudeaketa-eredua hobetzea. Antolamenduari dagokionez, premiazkoa da egitura eta profilak premia berrietara egokitzea eta sektorea artatzeko prozesu eta sistema funtsak egokitzea (kudeaketa, komunikazioa...). Hala ere, ez da ahaztu behar Baskegurrek autonomia lortu nahi duela bere finantzaketa-ereduan eta eragiketari, balio-kate osoaren zerbitzura dagoen eragilea baita, eta administrazio publiko eskudunentzat intereseko proiektuak erakartzen dituen.	
Justifikazioa	- Egitura indartzeko premia (diru-sarrerak x3 handitzea, eginkizun eta zerbitzuen bilakaera, talde berdina). - Lanpostu funtsetan belaunaldiarteko erreleboa egitea. - Zerbitzu eta eginkizunetan eta sortu zenetik (duela 10 urte) lortutako helburuetan izandako bilakaera aitortu beharra. - Balio-kate osoari laguntzeko rol eta eginkizun berriak bere gain hartu beharra, sektoreko erronkak aldatu baitira. - Finantzaketan autonomia eta oreka handiagoa izan beharra.	
Arduraduna/k	Baskegur.	
Jarduketa-arloak	Lehiakortasuna. Gobernantza.	
Ibilbide-orria	Baskegurren nahi den bilakaerari buruzko hausnarketa sustatzea (bazkide eta eragile laguntzaileekin) eta ibilbide-orria diseinatzea (Baskegur 2030).	2026 3S
	Barne-baliabideak eta funtsezko profilen erreleboa indartzea.	2026 2S
	Bitek martxan jartzeko prozesua berrikustea.	2026 2S
	Finantzaketa pribatuaren ratioa handitzea.	2028 2S
Eraginpeko GJHak	8. GJH – Lan egokia eta hazkuntza ekonomikoa. 9. GJH – Industria, berrikuntza eta azpiegitura. 17. GJH – Helburuak lortzeko aliantzak.	





5. Proiektua	Egurraren behatokia eta digitalizazioa	
Deskribapena	Egurraren behatokia sortzea, sektorearen informazioa egituratzeko ahaleginak eta eragile publiko eta pribatuek egiten duten informazio-sistemei lotutako digitalizazio eta elkarreragingarritasuneko lanak elkartu eta osatzeko, kalitatezko datuak erabiltzea handituz, denbora errealean, erabakiak hartu eta sektorearen komunikazioa sustatzeko.	
Proiektuaren funtsak	Basogintza- eta egurgintza-sektoreak eta administrazio publiko eskudunek urteak daramatzate prozesuak eta sistemak digitalizatzeko lanean, erabakiak hartzea eta sektorearekin lotutako komunikazio estrategikoa eta operatiboa errazteko datuak izateko (bakarrak eta denbora errealean). Euskal administrazio publikoek baso-informazioari buruzko prozesu eta sistemak digitalizatzen ari dira (administrazio-sistemak eta basoak kudeatzekoak digitalizatzea, Basodaren bezalako proiektuak, EUDR elkarreragingarria...) Bestalde, Baskegurrek lan egin du hainbat iturri eta erakundetako sektorekako datuak egituratzen, baita bi urtean behin Egurraren Euskal Behatokian argitaratzen ere. Amaitzeko, balio-kateko enpresa eta eragileek digitalizazioaren eta teknologia erabiltzearen aldeko apustua egin dute, posizionamenduaren eta baliabidearen arabera, hala nola, produktuen trazabilitatea digitalizatzeko. Proiektu honen helburua da sektorekako datuak egituratzen eta erabiltzen (Behatoki) pauso bat gehiago ematea, eta, aldi berean, baso-sektorearen eta egurraren industriaren sektorearen eragile pribatu eta publikoak digitalizatzeko prozesuak sustatzea.	
Justifikazioa	• Hainbat iturri eta eragileren sektorekako datuak egituratzen amaitzea. • Baso-baliabideen kudeaketa eraginkorragoa lortzea. • Produktuaren trazabilitaterako tresna digitalak garatzea. • Basogintza eta egurgintzako balio-kate osoaren digitalizazioa arintzea. • Aurrera egitea baso-informazioko sistemen digitalizazioan eta elkarreragingarritasunean. • Sektorearen aintzatespen soziala handitzea, informazioari eta datuari esker.	
Arduraduna/k	Baskegur eta HAZI.	
Jarduketa-arloak	Lehiakortasuna. Gobernantza.	
Ibilbide-orria	Sektorearen egoeraren eta premia digitalen diagnostikoa.	2026 1S
	Egurraren Behatokia sortzea, sektoreko datuak egituratu eta gobernanzarako prozesuaren azken pauso gisa (egungo Behatokia).	2026 3S
	Egurrezko produktuen trazabilitaterako digitalizazio-tresna osorik garatzea.	2027 3S
	Gardentasuna hobetu, sektorearen aitortze indartu eta informaziorik ezari aurre egitea ahalbidetuko duten datu irekien atari publikoa sortzea.	2028 2S
	Sistemaren datuek osatutako urteko lehen txostena argitaratzea, ebidentzian oinarritutako erabakiak hartzeko kultura finkatuz.	2028 2S
	Administrazioen, industriaren, teknologia-zentroen eta basoko jabeen arteko elkarreragingarritasun osoa.	2030 1S
	Analisi-gaitasun aurreratuak eta AA uztartzea arriskuak aurreikusi, aprobetxamenduak optimizatu eta klima-aldaketaren egoerak aurreikusteko.	2030 2S
	Baso-datuen 2035 Agenda argitaratzea, teknologia berriei, IoT sentsoak, mendiaren biki digitalak, bereizmen handiko klima-modelizazioa.	2030 2S
Eraginpeko GJHak	• 9. GJH – Industria, berrikuntza eta azpiegitura. • 12. GJH – Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak. • 13. GJH – Klimaren alde jardutea. • 15. GJH – Lurreko ekosistemetako bizitza.	



7.2. PLANEKO PARTAIDEEN ZERRENDA.

Honako eragile hauek hartu dute parte 2025eko irailaren eta azaroaren artean eginiko banakako elkarrizketetan:

Partaidetza-metodoa	Eragilea
Banakako elkarrizketa	EJ Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetza
	DFA/AFA - Baso-zerbitzuak
	DFB/BFA - Baso-zerbitzuak
	DFG/GFA - Baso-zerbitzuak
	Baskegur
	HAZI
	Neiker
	Europako Hegoaldeko Basoginen Batasuna (USSE)
	Arabako Basogintza Elkartea
	Bizkaiko Basogintza Elkartea
	Gipuzkoako Basogintza Elkartea
	Etorki
	Egoin
	Ebaki
	Baso-zentrala (Smurfit Kappa)
	Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga
	Maderas Aguirre (tamaina ertaineko zerratokiak)
	Maderas Torresar
	Zuhaizki (muntantzeko arotzeria)
	Lufe (tokiko egurrezko altzari merkeak)
	Certinalia
	BIOREGIONS FACILITY (EFI)
	AREFOR

2030 EPE dokumentua egiteko hausnarketa estrategikoan kokatutako partaidetza-foroa 2025eko azaroaren 28an egin zen, Zamudioko teknologia-parkeko ontzi eraikinean, eta honako hauek parte hartu zuten:

Partaidetza-metodoa	Eragilea
Partaidetza-foroa	EJ Elikadura eta Landa Garapeneko Sailburuordetza
	DFA/AFA - Baso-zerbitzuak
	DFB/BFA - Baso-zerbitzuak
	DFG/GFA - Baso-zerbitzuak
	Baskegur
	HAZI
	Neiker
	Europako Hegoaldeko Basoginen Batasuna (USSE)
	Euskadiko Mintegizainen Elkarte
	Euskadiko Basogintza Elkarte
	Euskadiko basogintza Elkartearen Konfederakundea
	Bizkaiko Basogintza Elkarte
	Gipuzkoako Basogintza Elkarte
	Basoa Fundazioa
	AREFOR
	Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga
	Smurfit Westrock Nervión
	Zubialde
	Arotzgi
	Acevi
	SEA
	Ebaki
	Etorki
	Egoin
	Gamiz
	Biotermiak
	Baso Ingeniarien Elkargoa
	Nekazaritza Zerbitzuko Saila – EJ
	Osasun Saila – EJ
	BMASI



